

JUDAS ARRIETA

“Ametsak ez dira gauzatzen baina hori ez da traumatikoa, ez da zerbait txarra”

Judas Arrieta (Hondarribia, 1971) diziplinarteko artista da eta proiektu sortzaileak gauzatzerakoan bitarteko desberdinak erabiltzea atsegin du. Testu batzuetan “arte ludiko dibertigarria” izenez definitu duenaren defendatzailea da, alegia, artea gozamen gisa. Adimen ironikoaren igorle dugu Judas. Errealitatetik eta fikziotik elikatzen du bere lana. Kasu guztietan, samurtasuna, sentimendua, basakeria, malenkonioa, zehaztasuna, erromantizismoa, kezka... nahi adina ditu.

Mendebaldeko gorputz batean harrapatutako arima asiarra da.

Jada fakultate garaietan gai horiekin aritzen nintzen, Japoniara joateko ametsa neukan.

Bilbon finkatu nintzen baina berehala konturatu nintzen txikia geratzen zitzaidala. Nik ikasi nahi nuen eta horretarako atera egin behar nuen. Bilboko Bilboarten, Hondarribiko Udalaren espazio batzuetan eta baita ere Donostiako Artelekun lanean aritu nintzen. Garai haietan hainbat sari irabazi nituen, diru-laguntzak... eta neoprofesional bezala ibili nintzen, baina beti ere gurasoen laguntza eta beste lan batzuekin tartekatuz.

Nire asmoa Unibertsitatean zinema egitea zen, eta fakultatean ikusi nuen talde-dinamikak ez nituela oso gogokoak. Orduan heldu nion margoari. Garai haietan esaten nuen 30 urterekin ez banu inongo saririk lortzen utziko nuela... baina hau ludopatia modukoa da, joko bat da.

Eta orain, zer esaten duzu?

Ba proiektu asko ditudala oraindik, momentuz amesten jarraitzen dut, erakusketak, “Goazen Txinara!” proiektua... Oraingo puzgarriekin arrakasta handia lortzen ari naiz, baina ez dakit artista edo “barrakero” naizen, eta egia esanda

bost axola, nik nahi dudana betetzen delako, nire lanekin jendea ondo pasatzea.

Askotan ametsi buruz mintzatzea entzuten da, hamabost urte hauetan konturatu naiz ametsak lortezinak direla, baina aurrera jarraitzeko balio dute eta baita proiektuak garatzeko ere. Ametsak ez dira gauzatzen baina hori ez da traumatikoa, ez da zerbait txarra. Helburuak lortzen zoazen neurrian, zure barnean zenituen helburuak ez direla konturatzen zara, hau da, amestutako helburua eta lortutako helburua ez da gauza bera, orduan jarraitzen dut amesten...

Hamabost urte hauetan ikasi dudana funtsezko gauza da, pertsonen abiadurak ez dira berdinak eta normalki gaztea zarenean dena motela iruditzen zaizu. Urterekin motelago joaten ikasten duzu. Eta baita ere egokitzen ikasten duzu, hau da, bizitza, artea... dena tipula bat bezala ikusten dut, hainbat kapa edo geruza dituzu eta zure gogokoak batzuk dira, baina batzuetan tokatzen zaizu egokitzen ez den kapa batean bizitzea.

Aipatzen dituzun ametsetako bat, zein duzu?

Ba adibidez, aipatu dizudana Japoniara joatea.

Eta lortu zenuen...

Bai, Japoniara joan nintzen, 2002an, aste batzuk nire kabuz. Hara ailegatu eta bai, asko ikasi nuen, baina ordutik beste hiru aldiz izan naiz Japonian eta oraindik ez dut nire ametsa bete.

Zergatik Japoniara?

Beti miretsi izan dut hango kultura eta gogoz nengoen nire lana bertan erakusteko eta haien erreakzioa konprobatzeko.

Non duzu estudioa?

Pekinen. 2005an nire lehenengo bidaia egin nuen Txinara, eta bertan egonda Madrilen jaso nuen sari baten diruarekin bertan geratzea erabaki nuen.



Baina zuk beti Japoniakin amesten zenuen...

Bai eta egia esanda ez dakit... Txinak aukera batzuk eman zizkidan, heldu nituen eta han geratu nintzen.

Alegia?

Txinan 200m² estudioa lortu nuen eta beste kulturak aztertzeko aukera. Nire asmoa zen lana egin ahal izatea egoera hobe batzuetan. Txinan egonda beste proiektu batzuei helderik izan dut, prezioengatik, aukerarengatik... Bost urteetan hango merkatuaren mugimenduak ikasteko denbora izan dut.

Saldu ere, salduko duzu.

Gauza batzuk bai, beste batzuk ez. Dena den, argi daukat ez naizela inoiz aberastuko nire lanarekin. Helburua aberastea izango balitz, ez nintzateke artista izango.

Eta bizitzerik dago artista izatetik?

Bizi bai, noski. Baina ezinezkoa da etxe bat edo kotxe bat erosi. Nire buruaren nagusia naiz, nik jartzen ditut ordutegiak... Zorte daukat zentzu horretan, baina bestalde ezinezkoa daukat hilabetero gizarte segurantzara ordaintzea. Hau da, ez naiz inoiz jubilatuko.

Bada zure lanak josten duen ildo?

Ez naiz inoiz teoriko bat izan, baina beti lotu izan dut artea jokoarekin, terapiarekin eta ondo pasatzearekin. Askotan esaten dut “soy un hijo bastardo de varios padres” (barrez). Alegia, nire lana DJ baten lanaren antzekoa da, besteen lanekin nahasketak egiten ditut jendea ondo pasatzeko. Nire lana belaunaldi baten islada da, ni jaio nintzenez telebista eta bideo-jokoak garatzen ari ziren.

Urkiri Salaberria

Elkarrizketa osoa: www.euskonews.com/56ozbk/

La entrevista completa está disponible en euskera y castellano en la dirección mencionada.

AMAIA OTAZO

Ekoliderrak: Gazte, trebatuak jasangarritasunaren alde

EKOLIDERRAK proiektuarean helburu nagusia Gipuzkoan jasangarritasunaren alde gogoz arituko den gazte sare formatu eta aktiboa sortzea da.

Proiektu hau Kutxak garapen jasangarriaren eta gazte lidergoaren alde egiten duen apustuaren ondorioetako bat da. Garapen jasangarriak erronka handia suposatzen du gure gizartean, eta erronka hauei aurre egiteko lidergo berria behar da maila guztietan: enpresetan, administrazioan, baita gizarte zibilean ere. Behar horri erantzunez sortzen da Ekoliderrak programa.

Proiektua 2010ean hasi zen Gazte Ekoliderrak-en lehen edizioarekin. Bertan 30 gazte osatutako taldeak, tartean ni neu, garapen jasangarria eta lidergoari buruzko trebakuntza fase bat jaso genuen eta gaur egun EKOLIDERRAREN SAREA osatzen dugu.

Ekintzara pasatzeko gogoak bultzatuta ni ere proiektu honetan murgildu nintzen. Banuen munduaren egoeraren inguruko kezka eta EA21 programetan besteei beren herrian gauzak nola hobe zitezkeen erakusten aritzean, nik neuk nere ideiak eguneroko bizitzan ez nituela praktikara eramaten konturatu nintzen. Aurrera pauso hau emateko asmoz eman nuen izena Ekoliderretan.

Ekoliderrak 2010

Lehenengo gauza taldea nortzuk osatzen genuen ikustea izan zen. 19 eta 30 urte arteko gazteak, oso disziplina ezberdinetakoak (denen artean 17 ezberdin; Ingeniariak, Abeltzainak, Enpresa mundukoak...) eta herri ezberdinetakoak

(Zierbenatik hasi, Berastegitik jarraitu eta Irun eta Donostialderarte). Amankomunean garapen jasangarriaren inguruko interesa eta lan egiteko gogoia.

Formazioz eta bokazioz perfil oso ezberdinetakoak izateak gai askoren inguruko ezagutza ematen digu baina baita gauzak ulertzeko hamaika ikuspuntu ere, eta hori izan zen hasieratik gure erronka, elkarrekin norabide berdinerantz gure indarrak batzea.

Proiektuaren gai nagusiak jasangarritasuna eta lidergoa dira, Ekoliderrontzat zer suposatzen zuten erabaki behar genuen esan nahi zabaleko bi hitz. Horretarako, alde batetik, ingurumena eta jasangarritasunaren inguruko ezagutzak jaso eta egungo gizartean lider izateko erremintak ezagutu genituen.

3 pausotako proiektua da: Trebatu-Ekin-Izan.

TREBATU; garapen jasangarriaren eta lidergoaren inguruko eduki eta formazioa jaso.

EKIN: ordurarte ikasitakoa martxan jarri; bakoitzak bere herri edo eskualdeetan garatzeko proiektu bat lantzea.

IZAN: gazte aktiboen sarea.

Formazioan zehar punta-puntako formatzaileekin lan egin dugu: unibertsitateko irakasle, erakunde eta elkarteetako ordezkari, mendizale, komunikazio aditu eta abarrekin. Inoiz landu ez genituen gaien inguruan formakuntza jaso genuen. Batzuek komunikazio eta lidergoa, besteek berriz bioaniztasuna, aztarna ekologikoa...ren inguruko ezagutza sakondu zituen.

Hala, jasangarritasunak natura, gizarte edo partaidetza ikuspegitik zer suposatzen duen lantzeaz gain, jasangarritasunaren bidean gauzatu nahi ditugun proiektuak aurrera ateratzeko prozedura eta komunikatzeko moduak ikasi ditugu. Azken finean, ingurumen-lidergoa nola gauzatu ikasi dugu. Horretarako, trebakuntzan oinarri horren teorikoak ez zituzten gaiak ere egon ziren, nolabait Ekoliderroi ekiteko inspirazioa eta indarra eman zigutenak; bere kabuz enpresa txikiak sortutako pertsonen testigantzak, bidaia bere ogibide egin zuenarena, Lakabeko kasua,... denek erakutsi ziguten ekiteko beste modurik ere badagoela.

Trebakuntza fasearekin batera, lantaldeak osatu genituen eta lantalde bakoitzak hainbat herri edo eskualdetan lantzeko proiektu ezberdinak definitu genituen, norberak arazo eta irtenbideak non ikusten zuenaren arabera. Bost proiektu garatu genituen: Mugikortasuna Industriegunetan; Aterpetxeak eta Ekobaserri Eskola barne dituen bidegorri-sare alternatiboa; Biztanleria ekoaktiboa bultzatzeko programa; Berderabilitzen; eta Ez gaude berde.

Eta orain IZAN fasera iritsi gara. Gaur egun Ekoliderrak sare bat gara, gure indarrak batu eta gizartearengana nola iritsi erabakitzen ari garenak, baina denen artean jasangarritasunaren alde lan egiteko prest gaudenak. Momentu honetan beste taldeekin loturak egitea da gure helburuetako bat, hala nola, Eusko Ikaskuntzako DatorkiGunea proiektuko taldekideekin.

Sare hori handitzen joateko, eta urtez urte gure taldea zabalduz joateko Ekoliderren bigarren edizioa hastear dago. Gazte Ekoliderrak egitasmoa 18-29 urte bitarteko gazteentzako formazioa da, bereziki garapen jasangarriarekin sentsibilizatuta dauden gazteei zuzendua.

Aipatutako guzti honetan interesa duen edonork proiektu honetara batzea animatuko nuke. Izen-emateko www.ekoliderrak.net

Paperetik sarera

www.euskomedia.org



Julián de Ajuriaguerra



Xabier Lete



Ajuriaguerra et Lete. Cine et bobsleigh

Il y a cent ans naissait le docteur **Julián de Ajuriaguerra**, illustre représentant de la Psychiatrie du XX^{ème} siècle. Elève de Jean Lacan, collaborateur de Jean Piaget et chercheur en Psychiatrie infantile, Ajuriaguerra développa sa carrière professionnelle à Paris et à Genève. Durant son étape parisienne il fréquenta des artistes surréalistes tels qu'André Breton, Antonin Artaud et surtout le poète Henri Michaux qu'il supervisa lors de ses fameuses expériences artistiques sous l'effet des hallucinogènes.

Cependant que se préparent les événements par lesquels Eusko Ikaskuntza d'Iparalde désire rendre hommage à la mémoire du docteur

Ajuriaguerra, nous apportons à notre sélection du mois une notice biographique publiée dans Auñamendi Eusko Entziklopedia, et qui porte la signature d'un autre psychiatre de renom : José Miguel Aguirre Oar.

“Dans ce pays il est important de faire de la poésie, de la musique et de la chanson pour ne pas abrutir plus nos vies”. C'est ce que disait **Xabier Lete**, poète, chanteur, homme engagé avec son époque et avec sa terre, réfléchi, passionné, profond, actif... Il est décédé le 4 décembre dernier à 66 ans, exactement deux ans et trois jours après Mikel Laboa. Le jour suivant la mort de Laboa, Lete était à l'espace radiophonique d'Euskalerrria

Irratia animé par la Société d'Etudes Basques. L'entrevue émouvante, d'à peine 20 minutes, représente donc un hommage et un adieu à un ami. Nous retrouvons cet enregistrement sur www.euskomedia.org sous le titre de “Laboa gogoan, Lete hizketan”.

Chaque mois de janvier, depuis 1987, le FIPA de Biarritz recense les dernières tendances en création audiovisuelle. Il a pour objectif que la télévision sois reconnue comme un moyen d'expression doté d'un langage propre et susceptible d'accueillir la création dans toutes ses possibilités (fiction, documentaire, expérimentation). Il y a une année, l'hebdomadaire *Euskonews* publiait un article intéressant décrivant le FIPA :

“Regards sur le Festival International des Programmes Audiovisuels de Biarritz”. Nous le mettons à la portée d'un simple clic dans la fenêtre **Atejoka** d' www.euskomedia.org.

Et nous fermons notre catalogue de janvier par une curieuse photographie d'il y a cent hivers qui fait partie du fonds historique d'Eusko Ikaskuntza. Devant le photographe posent quatre demoiselles et deux messieurs dans un “bobsled” ou luge collective avec la légende suivante: “Bobsleigh donostiarra que ganó el segundo premio en Cauterets el año 1911” (Bobsleigh donostiarra qui a gagné le second prix à Cauterets en 1911). Oh, les beaux jours de la Belle Époque!

JUAN CARLOS ARBONIES ORTIZ

Dejar de fumar en 2011

“**S**é que fumar es malo para mi salud, pero... de algo hay que morir...”. “Tengo que dejar de fumar, pero es que a mí me gusta fumar”. “Me lo he planteado muchas veces... pero el tabaco me puede, no tengo voluntad”. “Quiero dejarlo, pero la otra vez engordé mucho”. “Llevo varios días sin fumar... pero cada vez parece que tengo más ganas de coger un cigarro”.



Estos son algunos de los pensamientos que recorren muchas veces las mentes de los que somos o hemos sido fumadores. Son argumentos a favor y en contra de seguir fumando o dejar de fumar y reflejan lo que los expertos llaman *ambivalencia* que está presente en la mayoría de nuestros cambios de conductas y juega un papel central en conductas adictivas. Es la *balanza* del “querer y no querer” que está presente en cada una de las etapas de los cambios de conducta y que la persona que fuma tiene que desequilibrar para conseguir dejarlo. En ambos lados de dicha balanza existen costes y beneficios y será la propia persona quien irá inclinándose hacia un lado u otro si quiere cambiar su conducta. Lo cierto es que al final por mucho que se le insista, la decisión de dejarlo o no la tomará la propia persona y el éxito del cambio sobre todo será de ella.

Pero ¿qué podemos hacer los demás, entre otros los profesionales sanitarios para ayudarles? En primer lugar, intentar entenderle, ver cómo se siente ante la avalancha de críticas, de leyes que limitan, de prohibiciones, de subidas de impuestos... en definitiva expresarle *empatía*.

Además, favorecer que *reflexione* sobre su conducta, su adicción, su dependencia social y *aportar información* de lo que lleva el cigarrillo y su humo. Todo ello puede hacer que el fumador se dé cuenta de su relación con el tabaco y sus consecuencias para su vida y para los que tiene alrededor, entendiendo que la mejor “inversión” que puede hacer un fumador por su salud es dejar de fumar, mucho más que otras intervenciones como hacerse análisis o chequeos, ya que el tabaquismo es la *primera causa de morbilidad evitable en nuestra medio*. Las enfermedades pueden venir por casualidad, una infección o un accidente o bien por herencia, pero el tabaco es el causante de ciertas enfermedades que se pueden evitar dejando de fumar, es decir, está en sus manos prevenirlas.

Conviene por tanto, hacer énfasis en que *dejar de fumar funciona* resaltando los beneficios de vivir sin humo del tabaco, llegando a la conclusión que *merece la pena intentarlo* y que, a pesar de que cuesta, se puede conseguir.

Para lograrlo cada vez existen *más recursos* que se pueden emplear para ayudar al fumador. *Hay fármacos* de primera línea como los *sustitutivos de la nicotina*, el *bupropion* y la *vareniclina* que han demostrado que aumentan la posibilidad de dejar de fumar. También podemos ayudarles con *técnicas cognitivo-conductuales* que pueden servir cuando está preparado a dejar de fumar. Los estudios científicos dicen que lo más efectivo son las *intervenciones multicomponentes*, que combinan tanto tratamientos farmacológicos como psicológicos y sociales adaptados a cada paciente, teniendo en cuenta los motivos que tienen para dejar de fumar así como las barreras o motivos para seguir fumando.

Estas ayudas y tratamientos son importantes, pero sabemos que lo más importante es que la persona tome la decisión ya que será el fumador quien con ayuda o sin ella se convierta en exfumador. Para ello es importante buscarse un buen motivo que incline la balanza buscando alternativas al cigarrillo.

Si queremos ayudar al fumador debemos *respetarle* y *respetar su decisión*. Puede ser que no esté preparado todavía para inclinar la balanza hacia el cambio. Por ello dejaremos la puerta abierta para cuando esté dispuesto a dejarlo y le haremos entender que mientras tanto a su vez *respeten a los fumadores pasivos* intentando evitar que el humo del tabaco afecte a la salud de otras personas.


*Artículo dedicado a Jordi Cebriá, recientemente fallecido, catalán de Donostia, gran amigo y maestro con quien empecé a columpiarme en la balanza del cambio con el motor de la entrevista motivacional.

VV. AA.: “El abordaje del tabaquismo”. – En: Osasunaz. Cuadernos de CC. Médicas, 5. – Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2003. – 133-160 pp.

Gertatu zen



Gregorio Mujika



Aurrezki Kutxak bultzatuz Impulso a las Cajas de Ahorro

Impulsion donnée aux Caisses d'Épargne

Euskarazko antzerkia sustatzeko abiarazitako lanaren ildotik (ikus Atejoka 25 eta 26), jadanik aipaturiko “Antzerki Sariketa” obra lehiaketari, talde amateurren lehiaketari eta antzez taldeak elikatuko lituzkeen kalitatezko antzerki testuen gordailuari, laugarren proposamen bat erantsi zitzaion: euskarazko “Certamen de Teatro Guignol” delakoa.

Deitu zitzaion interesatu guztiei beren muntaketa prestatzen joan zitezene Donostian, 1921eko udaberrian egin beharreko emankizunei begira, non talde bakoitzak bere merezimenduak erakutsiko zituen. Txotxongilo eta obrei buruzko mugatze bakarrak seinatzen ziren: “Moralari eta hizkuntzari dagozkionak, euskararen edozein euskalki erabili beharko delarik”. Eusko Ikaskuntzak 500 pezetako kontu sail bat bereizi zuen Lehiaketa gastuetarako.

Conclusiones del Congreso

Tras el II Congreso de Estudios Vascos, la Junta Permanente solicitó a

los encargados de coordinar y sintetizar los trabajos en cada una de las Secciones, que indicaran cuáles de las conclusiones adoptadas pudieran ser objeto de una inmediata realización y los medios para llevarlas a cabo. A este llamamiento respondió con prontitud Gregorio de Mújica en representación de la sección De Seguros. Manifestó que “la más urgente y oportuna medida que debe adoptarse es la de gestionar que la Diputación de Navarra establezca una Caja de Ahorros propia y que la de Alava intensifique la acción de la suya”. Meses más tarde, en 1921, las gestiones de la Sociedad darían fruto con el nacimiento de la Caja de Ahorros de Navarra.

Monument à Amayur

Durant le Congrès, le 22 juillet 1920, un groupe de participants se déplaça au château d'Amayur pour poser la première Pierre de l'obélisque qui allait rappeler le souvenir des derniers défenseurs de l'indépendance du règne de Navarre à l'occasion du 400ème anniversaire de sa conquête. Les mois passèrent et le monument n'était pas érigé, ce qui fait qu'Eusko Ikaskuntza prit les choses en main. Le Conseil Permanent s'est engagé à veiller à ce que l'oeuvre se termine, “en contribuant pour cela, si nécessaire, avec son soutien matériel”.

Ikaskuntza zaleak



Antxon Aguirre Sorondo
(socio n° 503)
Investigador etno-histórico y divulgador cultural en

diversos medios de comunicación. Posee una amplísima bibliografía sobre tradiciones, historia local, patrimonio, oficios y formas de trabajar. Pertenece a los grupos de investigación Etniker. Es desde su fundación Presidente de la ACEM (Asociación para la Conservación y el Estudios de los Molinos). Obtuvo en 1987 el 2º Premio Nacional de Investigación "Marqués de Lozoya", y la Beca José Miguel de Barandiarán en 1993. El pasado diciembre recibió el Artetsu Saria por su dilatada labor de promoción de la artesanía mediante investigaciones, artículos y series de televisión.



Teresa del Valle Murga (899 bazkidea zk.)
Antropología ikasketak egin zituen 1970-1978 urte bitartean

Guam eta Hawaii-ko iparramerikar unibertsitateetan eta landa lanak egin zituen Mikronesiako emakumeen artean. EHUn Gizarte Antropologia irakasten lehen pertsona izan zen, baita diziiplina hori Euskal Herriko ikasketa ofizialetan sartu zuen lehena ere (gaur unibertsitate horretako Katedradun Emeritua da). Hainbat liburu argitaratu ditu. Gaur egun Eusko Ikaskuntzako Gipuzkoako Lehendakariordea eta Innobasqueko aholku kontseiluko kidea da. 2010ean, Berdintasunerako Emakunde Saria jaso du emakumeen errealitatea ikertzen eta zabaltzen egindako lanaren aitormenez.



Blanca Lopez de Juan Abad (5.761 bazkide zk.)
Blanca Lopez de Juan Abad (Gasteiz, 1982) EHUn euskal

filologian lizentziatua da eta hizkuntza-irakaskuntzan dabil lanean. Eusko Ikaskuntzako Gazte Sailak bultzatutako hainbat proiektutan elkarlanean ibili da. Momentu honetan, *Datorkigunea* foroan parte hartzen du eta zenbait irratitertuliatan kolaboratu du. Gaur egun, Psikodidaktikako master bat egiten ari da EHUn eta bere asmoa da konpetentzia emozionalei buruzko tesia egitea. Gai honen ganean ikas-materiala sortzea bereziki interesatzen zaio. Duela gutxi, bere ideiak *Ei gazte!* saria irabazi du: Euskararen Nazioarteko Eguna dela eta, plata-forma birtual batean euskararen hitz politeknak hautatzera gonbidatzen duena.



Patxi Ladevèse
(membre n° 6.142)
Licencié en histoire à l'Université de

Bordeaux 3, il prépare dans le cadre de son Master 2 d'histoire un *Mémoire sur la Modernisation du monde agricole dans le canton de Saint-Palais depuis 1945* (travail qui a bénéficié d'une bourse d'étude d'Eusko Ikaskuntza et de la Ville de Biarritz en 2009). Son attachement à la vie économique, sociale et culturelle du Pays Basque se traduit par de nombreuses implications associatives: Gaia elkarte (promotion des jeux traditionnels), Euskal Herria Zuzenean (organisation d'événements culturels), Manex Goyhenetche Kultur Etxea (centre culturel d'Anglet), etc.

Argitalpenak



Museos y parques naturales

AUTOR: IÑAKI ARRIETA URTIZBEREA (ED.)
BILBAO : UPV/EHU, 2010
216 P. ; 24 CM.
ISBN: 978-84-9860-448-1

Esta obra consta de tres apartados en los que profesores, investigadores y especialistas disertan acerca de los procesos de patrimonialización de la cultura y la naturaleza a partir de experiencias concretas en Europa y América. En la primera parte son los museos los objetos de análisis como instrumentos promotores del desarrollo y de la identidad locales; el boom de los museos en los últimos años y su relación con el turismo; y la implementación de redes. En la segunda parte se abordan los parques naturales y la vinculación de los patrimonios cultural y natural. Por último se trata de la necesidad de estrechar las relaciones y vinculaciones entre universitarios y agentes locales.



Eibar, tintaz eta lumaz

EGILEA: JULEN ZABALETA, "YULEN"
EIBAR : UDALA, 2010
121 OR. ; IL. ; 29 CM.
ISBN: 978-84-89696-55-6

Liburu eder honek Julen Zabaleta Barrenechea, "Yulen"ek (Eibar, 1921) ondurioko ehun pieza biltzen ditu. Delineatzaile lanbidez eta, hortaz, marrazki teknikoan aditua, 1960an Yulenek Juan San Martinekin kolaboratu zuen beronen *Zirikadak* eta *Eztenkadak* obrak irudiztatzen. Harrezkerotik, produkzio eskerga eta askotarikoa gauzatu du, kolaborazio ia beti eskuzabaletan erakunde publikoekin zein pribatuekin lankidetzan, baita hainbat ikertzaileekin ere, hala nola Carmelo Urdangarin, Jose Maria Izaga, Koldo Lizarralde, Jose Antonio Azpiazu, Ramiro Larrañaga edo Antxon Aguirre. Beste motibo askoren artean, Euskal Herriko eliza, ermita eta eraikin monumentalen ia 4.000 marrazki ondu ditu.



De albéitares y herreros. Herradores de Guipúzcoa por localidades

AUTOR: ANTXON AGUIRRE SORONDO
DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN : DOCTOR CAMINO, 2010
197 P. ; 25 CM.
SEPARATA DEL N° 43 DEL BOLETÍN DE ESTUDIOS HISTÓRICOS SOBRE SS

El presente trabajo es una parte de la obra global que mereció en 1987 el segundo Premio Nacional de Antropología "Marqués de Lozoya" del Ministerio de Cultura. Corresponde al censo de los últimos albéitares en ejercicio en Gipuzkoa en la primera mitad de la década de 1980. Resulta extraño que haya tenido que pasar casi un cuarto de siglo para ver la luz esta obra tan exhaustiva donde aparecen cientos de personas y linajes vinculados a un oficio ya hoy prácticamente desaparecido. Pueblo a pueblo, se recogen los datos de sus albéitares con indicación de su procedencia, árbol genealógico y tradición familiar en el oficio, aprendizaje y todos los datos relativos a su vida profesional.



Rafael Sánchez Mazas. El espejo de la memoria

AUTOR: ALFONSO CARLOS SAIZ VALDIVIELSO
BILBAO : MUELLE DE URIBITARTE, 2010
229 P. ; 24 CM.
ISBN: 978-84-937587-3-8

La colección "Bilbainos recuperados" que dirige el periodista Carlos Bacigalupe salda una deuda pendiente con uno de los grandes autores bilbainos pero injustamente olvidado: Rafael Sánchez Mazas (1894-1966). Y lo hace a través de la extraordinaria pluma de Alfonso Carlos Saiz Valdivielso. Con erudición, investigación y pasión, las doscientas jugosas páginas nos adentran en el hombre y en el escritor, en sus vivencias y en sus obras. La calidad de la edición y el estilo de Saiz Valdivielso animado con notas y anécdotas de carácter íntimo, hacen de este libro una lectura deliciosa y una clarificación casi definitiva sobre quién fue Sánchez Mazas al margen de las adherencias políticas.

ATEJOKA
027

URTARRILA
ENERO
JANVIER
2011



Argitaratzailea
Eusko Ikaskuntza. Miramar Jauregia,
Miraoncha, 48. 20007 DONOSTIA.

Argitalpen Idazkaria
Eva Nieto

Argazkiak
Eusko Ikaskuntzako Argazki Artxiboa,
Euskomedia Fundazioa eta Flickr

Harpidetzak
Atejoka etxean jaso nahi baldin
baduzu, idatzi edo dei eginez ezazu
helbide hauetara:

Eusko Ikaskuntzako
Bulego Nagusiak
Miramar Jauregia, Miraoncha, 48
20007 DONOSTIA
Tel. 943-310855
Fax 943-213956
ei-sev@eusko-ikaskuntza.org.

Arabako Bulegoa
General Alava, 5-1º
01005 GASTEIZ
Tel. 945-23552
Fax 945-148752
gasteiz@eusko-ikaskuntza.org.

Bizkaiko Bulegoa
Pº de Uribitarte, 10, planta baja
48009 BILBAO
Tel. 94-4425287
Fax 94-4414650
bilbo@eusko-ikaskuntza.org.

Nafarroako Bulegoa
Pl. del Castillo, 43 bis, 3. D
31001 IRUÑEA
Tel. 948-22105
Fax 948-21717
iruna@eusko-ikaskuntza.org

Ordutegia
Astelehenetik ostegunera 9:00-13:00
eta 15:30-17:30; ostirala, 9:00-13:00

Horario
De lunes a jueves de 9:00-13:00 y de
15:30-17:30; viernes de 9:00-13:00

Iparraldeko Bulegoa
51 quai Jauréguiberry
64100 BAIONA
Tel. 559598290
Fax 559461844
baiona@eusko-ikaskuntza.org

Ordutegia
Astelehenetik ostegunera: 8:30-12 eta
15:00-18:00. Ostirala: 8:00-12:00.
Du lundi au jeudi: 8:30-12:00 et 15:00-18:00
et le vendredi de 8:00-12:00.

L.G.: SS-150-2008. ISSN: 1889-0342
Fotokomposaketa: Ipar SL
Inprimategia: Michelena a. g. Astigarraga